Baztango Udala

| 2021-06-22 Oharra | Nota Informativa 22-06-2021 |
|---|---|
| **Uztailaren 1etik aitzinera, Xorroxingo Ur-jauzia eta Amaiurko Gaztelua bisitatzeko erreserba egin beharko da.**<br>Xorroxingo Ur-jauzia eta Amaiurko Gaztelua bisitatzeko Erratzu eta Amaiurrera autoz eta goi-denboraldian hurbiltzen direnek herri sarrerako parkinetan aparkatu beharko dute. Aparkatzeko tokia mugatua izanen da eta lekua erreserbatu nahi dutenek https://baztanerreserbak.eus/ orriaren bitartez zehaztu beharko dute eguna eta ordua. Esteka hontara iritsi daiteke baztanturismo.eus eta valledebaztan.com orrietatik ere. Sistema hau froga moduan jarriko da martxan, momentuz ez da tasarik ordaindu beharko, baina erreserba egin, egin beharko da. Amaiurko aparkalekurako egiten den erreserba bakoitzeko Arkeologia Zentroa bisitatzeko sarrera bat urririk izanen da.<br>Honekin, interes gune hauek jasaten duten etorrera egunean zehar banatu nahi da eta txangozale eta turisten fluxua nahi dugun leku hoietara bideratu, masifikazioa eragotziz.<br>Amaiur eta Erratzuko Herriko Etxeekin batera landutako sistema da, eta herri bakoitzeko Batzarreetan eman zaio oniritzia. | **Desde el 1 de julio será necesario realizar una reserva para visitar la Cascada de Xorroxin o el Castillo de Amaiur.**<br>Quienes se acerquen en coche y en temporada alta a Erratzu y Amaiur para visitar la Cascada de de Xorroxin o el Castillo de Amaiur deberán aparcar en los párkings localizados en la entrada de los pueblos. El aforo se controlará por vehículos, será limitado y las personas interesadas en reservar un espacio deberán especificar el día y la hora a través de la página https://baztanerreserbak.eus/. A este enlace se derivará también desde las páginas turismobaztan.eus y valledebaztan.com. Este sistema se pondrá en marcha como prueba, de momento no habrá que pagar tasas, pero habrá que reservar. Por cada reserva para el aparcamiento de Amaiur una entrada para visitar el Centro Arqueológico será gratuita.<br>Con esto se pretende distribuir a lo largo del día la afluencia a estos puntos de interés y canalizar el flujo de excursionistas y turistas hacia aquellos lugares que queremos, impidiendo la masificación.<br>Se trata de un sistema elaborado conjuntamente con las *Herriko Etxeak* de Amaiur y Erratzu, y al que se ha dado el visto bueno en sus respectivos *Batzarres.* |
| **Etorrera kontrolatua eta lagundua.**<br>Sistema hau ezartzeko hiru langile ere kontratatu dira, eta Erratzu eta Amaiurren arituko dira zereginetan. Ordenaziorako beharrezko euskarriak prestatzeaz, erreserben balidazioaz, aforoaren kontrolaz, estadistikez eta bisitariak orientatzeaz arduratuko dira.<br>Hasiera batean, aldi berean 60 ibilgailu onartuko dira gehienez, eta autobusek Ordokin aparkatu beharko dute. | **Afluencia controlada y asistida.**<br>Para la implantación de este sistema también se ha contratado a tres trabajadoras que realizarán sus labores en Erratzu y Amaiur. Se encargarán de la preparación de los soportes necesarios para la ordenación, validación de reservas, control del aforo, estadísticas y orientación de visitantes.<br>En principio, se admitirán un máximo de 60 vehículos simultáneamente y los autobuses deberán aparcar en Ordoki. |
| **Herri bideak.**<br>Marka xuri-laranjaz loturiko herri-bideak sortzen ari dira lehenagokoak aprobetxatuz, oinez zein mendi-bizikletaz egitekoak. Azpilkueta, Amaiur, Arizkun eta Erratzu lotuko dituen zirkuitua marrazten ari da, eta Baztangoizako jarduerak saretzeko aukeran pentsatua dago. Amaiur eta Erratzu lotzen dituen ibilbidea markatua dago jadanik, 3 ordutan errex egiten ahal da 10 km-tan duen 430 m-ko desnibela, | **Herri Bideak.**<br>Se está creando una red de caminos que conectarán los pueblos con marcas blancas y naranjas, aprovechando los ya creados, y que podrán realizarse tanto a pie como en bicicleta de montaña. Los caminos que conectarán Azpilkueta, Amaiur, Arizkun y Erratzu están pensados en favorecer la red de actividades de Baztangoiza. El recorrido que une Amaiur y Erratzu ya está marcado, en 3 horas se |

eta paraje ezin ederragoetatik pasatzen da. Hortan eta Baztango bertze baliabideak txukuntzen aritu dira udalarendako dabiltzan hiru zerbitzu anitzetako langileak, eta pixkanaka prest egonen dira Baztandarrendako eta bisitariendako.

**Elizondoko turismo bulegoa eta Amaiurko informazio puntua. Udako ordutegia.**

Amaiurko Arkeologia Zentroko informazio puntuan Marian Iruin arituko da egunero, 11:00etatik 14:00etara goizez eta 16:00etatik 19:30etara arratsaldez. Bisita gidatuak ere eskeiniko ditu, euskeraz 12:30etan eta gazteleraz 17:00etan izanen dira.

Elizondoko Turismo Bulegoa aldiz egunero irekiko da, astelehenetik ortziralera 09:00etatik 17:00etara, eta asteburuan 09:00etatk 15:00etara. Udan arituko den Iñaki Azanza izanen da Jasone Astibiaren osagarria.

puede superar fácilmente su desnivel de 430 m en 10 km, y pasa por parajes impresionantes. Estos y otros caminos y recursos de Baztan están siendo adecentandos por los tres trabajadores de servicios múltiples del ayuntamiento, y poco a poco estarán disponibles para todas las Baztandarras y para los visitantes.

**Oficina de turismo de Elizondo y punto de información de Amaiur. Horario de verano.**

En el punto de información del Centro Arqueológico de Amaiur estará Marian Iruin todos los días, de 11:00 a 14:00 por la mañana y de 16:00 a 19:30 por la tarde. También ofrecerá visitas guiadas en euskera a las 12:30 horas y en castellano a las 17:00 horas.

La Oficina de Turismo de Elizondo abrirá todos los días de lunes a viernes de 9:00 a 17:00 horas y el fin de semana de 9:00 a 15:00 horas. Iñaki Azanza será el complemento de Jasone Astibia en verano.



Lorea Plaza, Nerea Barberena eta Saioa Dendarieta Erratzu eta Amaiurko antolamenduan arituko dira, Iñaki Zubiri Turismo Bulegoa indartzera dator, eta Aingeru Olabe, Oier Maxaborro eta Eñaut Beristain dabiltza xokoak txukuntzen. Hauetaz gain, Jasone Astibia ere Turismo Bulegoan arituko da, Elizondon, eta Marian Iruin Amaiurko Zentro Arkeologikoko Informazio Puntuan.